



Ebazpena, Hezkuntza Politiketako Sailburuordearena, hainbat plaza eskaintzen dituen herri ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasleek hizkuntzan murgiltzeko egonaldiak egin ditzaten.

Atzerriko hizkuntzak ikastea interes orokorreko eta hezkuntza-sistema bera hobetzeko ezinbesteko hezkuntza-helburua da oinarritzko hezkuntzan.

Araudi eta curriculum berriak ezartzen duenaren arabera, hezkuntza-sistemaren helburuetako bat atzerriko hizkuntza batean edo gehiagotan komunikatzeko gaitasuna lortzea da. Era berean, hezkuntza-administrazioei dagokie araudi hau aplikatzeko prozesuan atzerriko hizkuntzak indartzeko eta ikasteko programak ezartzea bermatzeko beharrezkoak diren baliabideak ematea, ikaskuntzak hobetzeko eta irakasleei laguntzeko.

Maiatzaren 30eko 77/2023 Dekretuak, Oinarritzko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoak, nabarmentzen du gure ikasleek hizkuntza-komunikaziorako eta eleaniztasunerako gaitasuna garatu behar dutela hezkuntza-etapa guztietan, bizitzarako beharrezkoak diren gaitasunak garatzeko aukera emanaz eta haien etengabeko ikaskuntza sustatuz. Bi gaitasunak eskuratzeko, beharrezkoa da ahoz edo idatziz modu koherente eta egokian jardutea, hainbat esparru eta testuingurutan eta helburu desberdinekin.

Horrek esan nahi du bi hizkuntza ofizialak erabiltzea, euskara beti ardatz izanik, eta atzerriko hizkuntzak komunikaziorako eta ikaskuntzarako erabiltzea. Komunikazio-dimentsioa ez ezik, ikasleak beren ingurunean dagoen hizkuntza- eta kultura-aniztasuna ezagutzera, ulertzea eta errespetatzera eramaten dituzten alderdi historikoak eta kulturartekoak ere biltzen ditu.

Hezkuntzaren arloan eskumena duen sailari dagokio hizkuntzen tratamendu integratua eta integrala sustatzea, komunikazio-gaitasun eleaniztuna garatze aldera.

Hori guztia, Euskararen Erabilera Arauzkotezko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarritzko Legean, Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duen uztailaren 11ko 138/1983 Dekretuan jasotako xedapenak betez, hizkuntzaren arloko euskal araudiaren esparruan.

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila ahalegin handia egiten ari da ikasleek atzerriko hizkuntzak hobeto ikas ditzaten. Ingeles hizkuntzari dagokionez, beste neurri batzuen artean hizkuntzan murgiltzeko egonaldien programa sustatzen ari da, ikasleek ikasgelakotik haratago dauden egoera komunikatiboetan atzerriko hizkuntza erabil dezaten, eta, beraz, ohiko komunikazio-harremanetan erabiltzeko aukera gehiago izan dezaten.

Aipatutako programa ingeles hizkuntzan murgiltzeko 5 eguneko egonaldietan datza, barnetegi gisa.

Ikastetxe parte-hartzaileek programaren balorazio positiboa egin dute. Ondorioz, Hezkuntza Sailak arestian aipatutako egonaldietako 2025-2026 ikasturterako deialdia berriro ateratzea erabaki du.

Ebazpen honen bidez arautuko da egonaldietan parte hartuko duten ikastetxeak aukeratzeko prozesua, eta parte hartzeko baldintzak ere zehaztuko dira.

Gauzak horrela, azaroaren 19ko 381/2024 Dekretuan, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena, eta gainerako xedapen aplikagarrietan ezarritakoaren arabera,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa

1.- Ikastetxe publikoetan matrikulatutako Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleentzako 1.775 plaza eta Bigarren Hezkuntzako 2º mailako ikasleentzako 1.775 plaza deitzea, ingelesez murgiltzeko egonaldietan parte hartzeko.

2.- Jarduera gauzatzean, istripu-asegurua eta erantzukizun zibileko asegurua izango dute parte hartzaileek.

3.- Lurralde historiko bakoitzaren matrikula hartuko da kontuan ikastetxe-kopurua lurraldeka banatzeko.

4.- Jarduera 2025eko abendua eta 2026ko maiatza bitartean gauzatuko da, I. eranskineko egutegiaren arabera. Ikasleak astebetetz egongo dira barnetegian, astelehenetik ostiralera.

Ingeles hizkuntza ikasteko jardueren programak II. eranskinean jaso diren orientabide orokorrak bete beharko ditu.

Bigarrena

Parte hartu nahi duten ikastetxeek Lehen Hezkuntzako 6. mailako edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako gelak osorik aurkeztu beharko dituzte.

Ikastetxeak, bere tamaina txikia dela eta, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. kurtsoetako ikasleak klase berean elkartzen baditu, bi mailetakoko ikasleekin parte har dezake. Hala ere, plaza lortzen badu, datorren ikasturteko deialdian ezingo du parte hartu. Era berean, aurreko ikasturteko deialdian plaza lortu badu, deialdi honetan ezin du parte hartu.

Ikastetxe bakoitzak ikasleak lagunduko dituzten irakasleak izendatu beharko ditu, Hezkuntza Politiketako Sailburuordearen ikasturte-hasierako ebazpenean ezarritako ratioei jarraituz (2025-2026 ikasturtearen antolaketa Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta 2025-2026 ikasturtearen antolaketa Bigarren Hezkuntzako institutuetan), eta, ahal dela, laguntzaile berberak izango dira egonaldiaren 5 egunetan. Irakasle laguntzaileek, ahal izanez gero, murgiltze-programa garatzeko ingelesaren ezagutza-maila egokia izango dute.

Irakasle laguntzaileak arduratuko dira taldeak jardueran behar bezala parte hartzeaz, programaren funtzionamendu egokia uneoro bermatuz. Honako betebeharrak izango dituzte programa garatzen den bitartean:

- Programa osoan zehar ikasleen segurtasuna zainduko dute.
- Profesionalki parte hartu eta lagunduko dute programatutako jarduerak garatzen.
- Instalazioen eta horietan emandako materialen erabilera egokia kontrolatuko dute.
- Arauak eta ordutegiak betetzen direla egiaztatuko dute.
- Monitoreei hainbat jardueratan lagunduko diete, jarduera horiek behar bezala garatuak izan dezaten.
- Jarduerak errespetuzko, tolerantziazko, parte hartzeko eta pentsamendu- eta sinesmen-askatasuneko giroan garatzea bultzatuko dute, baita giza eskubideak eta aniztasunaren defentsa bermatzea ere.

Hirugarrena

2025eko ekainaren 6an amaituko da eskabideak egiteko epea, egun hori barne. Aipatu berri dugun eskabidean, ikastetxeko irakasleen klaustroaren oniritzia adierazi behar da; horretarako, eskabidean bereziki prestatutako paragrafoa bete behar da.

Eskaerak dagozkien eranskinekin batera elektronikoki tramitatuko dira. Tramitazioa herri ikastetxeei zuzendutako atari honetan egingo dira: “Herri-ikastetxeak/Deialdiak” (<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak>).

Aurtengo deialdiko fitxa atari horretan argitaratuko da, eta baita deialdi honekin erlazionatutako berri guztiak ere. Fitxa horretan eskatzaile guztiek eskura izango dituzte eskaera egiteko gida eta jarraibideak.

Eskabidean, ikastetxeak egonaldia egin nahi ez duen data bat hautatzeko aukera emango da. Datarik hautatzen ez bada eta ebazpenean egin ezin duen egonaldi bat esleitzen bazaio, datak aldatzen saiatuko da beste zentro batekin, eragindako gainerako zentroei kalterik egin gabe. Aldaketa hori egin ezin bada, ikastetxeak plazari uko egin beharko dio, eta erreserban dauden ikastetxeei deituko zaie.

Laugarrena

- 1.- Ingelesez murgiltzeko egonaldiaren kostuak, Hezkuntza Sailak ordainduko ditu, zati batean, eta ikasleek, beste zati batean.
- 2.- Murgiltzeko egonaldi hauetan parte hartzen duen ikasleari ordaintzea dagokion zatia 40 eurokoa da.
- 3- Jardueraren sarrerako eta irteerako joan-etorriaren garraioa ikastetxeen kargu izango dira.

Bosgarrena

- 1.- Ikaskuntza eta Berrikuntza Zuzendaritzak egingo du eskabideen aukeraketa.
- 2.- Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleak dituzten ikastetxeak hautatzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:
 1. Aurreko deialdietan hizkuntza egonaldiak izan ez dituzten zentroak.

2. Aurreko bost ikasturteetan (2019-2020tik 2024-2025era, biak barne) egonldirrik egin ez duten ikastetxeak, nahiz eta aurretik egonldiren bat egin izan.
3. Hezkuntza Sailaren mende dauden eta unibertsitatetik kanpoko irakaskuntza (heziketa-zikloak salbu) ematen duten ikastetxeei zuzendutako deialdian parte hartu duten ikastetxeak, horiek prestakuntza-jarduerak egin ditzaten 2024-2025 ikasturtean, ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren barruko berrikuntza-proiektuei lotuta (Eleaniztasunerantz eta Pluriliteracies).

Eleaniztasunerantz programaren kasuan, lehentasuna izango dute B modalitateko ikastetxeek, A modalitateko ikastetxeen aldean.
4. 2019-2020 ikasturtetik Erasmus+ programaren ekintza hauetako batean parte hartu duten ikastetxeak: eTwinning eta KA2 eskola-elkarteak.

3.- Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasleak dituzten ikastetxeak hautatzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1. Aurreko deialdietan hizkuntza egonldirrik egin ez duen zentroa.
2. Hezkuntza Sailaren mende dauden eta unibertsitatetik kanpoko irakaskuntza (heziketa-zikloak salbu) ematen duten ikastetxeei zuzendutako deialdian parte hartu duten ikastetxeak, horiek prestakuntza-jarduerak egin ditzaten 2024-2025 ikasturtean, ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren barruko berrikuntza-proiektuei lotuta (Eleaniztasunerantz eta Pluriliteracies).

Eleaniztasunerantz programaren kasuan, lehentasuna izango dute B modalitateko ikastetxeek, A modalitateko ikastetxeen aldean.
3. 2019-2020 ikasturtetik Erasmus+ programaren ekintza hauetako batean parte hartu duten ikastetxeak: eTwinning eta KA2 eskola-elkarteak.

4.-Berdintasun-egoerak, hala badagokio, ikastetxearen testuinguru sozioekonomikoaren arabera barematuko dira, eta lehentasuna izango du hezkuntza-komplexutasunaren indize handiena duen ikastetxeak.

Lehentasunaren irizpide horiek aplikatuta ere berdinketak bere horretan badirau, ikastetxearen neurriari erreparatuko zaio. Hau da, kasu horretan, lehentasuna izango dute ikasle gutxien matrikulaturik duten ikastetxeek.

Seigarrena

1.- Ikaskuntza eta Berrikuntza Zuzendaritzak ebazpena argitaratuko du eskaerak aztertu ondoren. Ebazpen horretan hauek zehaztuko dira:

- Parte hartuko duten zentroyen zerrenda. Kasu bakoitzean emandako txanda, talde eta ikasleen kopurua adieraziko da.
- Erreserban dauden ikastetxeen zerrenda, eskaerak plazen kopurua baino handiagoak izanez gero. Huts egiteak daudenean erreserban dauden zentroyen hautaketa talde eta ikasleen antzen arabera egingo da lurraldeka.
- Bazter utzitako ikastetxeen zerrenda, arrazoiak zehaztuz.

2.- Ikaskuntza eta Berrikuntza Zuzendaritzak txandak esleituko ditu eta enpresen kontratatatzeko prozeduraren barruan egongo da esleipena. Horretarako parte hartzen duten ikasleen kopuruen aldaketak ahalik eta gutxien izan behar dira.

3.- Hizkuntzan murgiltzeko programa hau benetan gauzatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da 2026rako aurrekontu-esleipena izatea eta enpresa antolatzailearekin kontratua esleitzea.

Zazpigarrena

Enpresa kontratatua jakin bezain laster, ikastetxeek dagokion dokumentua formalizatuko dute enpresarekin. Horretarako, Ikaskuntza eta Berrikuntza Zuzendaritzak eman duen eredia hartuko dute oinarri. Dokumentuan zehaztuko dira, batetik, ikasle parte-hartzaileen kopurua eta, bestetik, ikasleen kuoten ordainketa konpromisoa aipatutako enpresari, egonaldia hasi aurretik egingo dena.

Zortzigarrena

Behin dokumentua sinatuta, han ezarritakoa bete beharko da. Hori dela eta, ikastetxeren batek ezin badu barnetegiko asteaz gozatu gertaera horren berri eman beharko dio Ikaskuntza eta Berrikuntza Zuzendaritzari, aurrerapen nahikoarekin, bere ordezkari beste ikastetxe bat joan dadin.

Hala gertatuz gero, Ikaskuntza eta Berrikuntza Zuzendaritzak beste ikastetxe bat aukeratu du astebeteko barnetegiaz goza dezan. Nahiz eta haren lekuan joateko beste ikastetxe bat izendatu, egonaldiari uko egiten dion ikastetxeak bere gain hartu beharko ditu dokumentuan hitzartu dituen ordainketak, joango den ikastetxeko ikasleek guztira egingo duten ordainketa-kopurua baxuagoa bada.

Bederatzigarrena

1.- Barnetegia amaitu eta hamabost egun igaro aurretik, ikastetxeak txosten laburra landu beharko du. Txostenean, atal hauek zehaztu behar dira:

1. Barnetegian izan diren ikasleen kopurua.
2. Ikasleen parte-hartzea alderdi pedagogikoetan eta bizikidetzan.
3. Alderdi teknikoaren eta antolakuntzako alderdien ebaluazioa (barnetegiaren azpiegiturak eta antolakuntza).
4. Hala balegokio, iradokizunak eta hobetze-proposamenak.
5. Irakasleen parte hartzearen zerrenda atxikituko da. Irakasle bakoitza programan zenbat egun igaro dituen zehaztuz.

Egonaldi osoan zehar parte hartzen duten irakasleei (5 egun) programa honetan parte hartu izana aitortuko zaie, gehienez ere 30 orduko prestakuntzarekin. Balioespen hori egonaldiak amaitu ondoren egingo zaie dagokien irakasleei.

2.-Ikastetxeko urteko memorian jasoko da txosten hori eta <https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak> plataforman ere.

Hamargarrena

Ebazpen honetan jasotako egonaldiak garatzen diren unean indarrean dagoen osasun-araudiak eta Hezkuntza Sailaren protokoloek baldintzatuko dituzte.

Hamaikagarrena

Ebazpen honetako prozeduretan aurkeztutako eskabideetan eta dokumentazioan agertzen diren datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta tratamendu-jarduera honetan sartuko dira: Ikaskuntzako eta hezkuntza-berrikuntzako laguntzak eta dirulaguntzak.

- Arduraduna: Ikaskuntza eta Berrikuntza Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.
- Helburua: ikaskuntzako eta hezkuntza-berrikuntzako laguntzak eta dirulaguntzak. Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.
- Hartzaileak: Ekonomia eta Ogasun Saila. Ikastetxe publikoak.
- Eskubideak: eskubidea duzu datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.
- Informazio gehigarria: gure web-orrian kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/050400-cap2-eu.shtml>

Araudia:

- Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>) – 3/2018)
- Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673>)

Era berean, deialdi honetan parte hartzen dutenek baimena ematen diote Ikaskuntza eta Berrikuntza Zuzendaritzari beste erakunde publiko batzuetan egiazta dezan aurkeztutako dokumentuak egiazkoak direla.

Vitoria-Gasteiz, sinaduraren datan

Lucía Torrealdai Berrueco

Hezkuntza Politiketako Sailburuordea



I. ERANSKINA
HIZKUNTZAN MURGILTZEKO EGONALDIEN EGUTEGIA
2025-2026 IKASTURTEA

Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleak

Abendua 2025					
Txanda	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
1	1	2	3	4	5
2	15	16	17	18	19

Urtarrila 2026					
Txanda	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
3	12	13	14	15	16
4	19	20	21	22	23
5	26	27	28	29	30

Otsaila 2026					
Txanda	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
6	2	3	4	5	6
7	9	10	11	12	13
8	23	24	25	26	27

Martxoa 2026					
Txanda	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
9	2	3	4	5	6
10	9	10	11	12	13
11	16	17	18	19	20
12	23	24	25	26	27

Apirila 2026					
Txanda	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
13	13	14	15	16	17
14	20	21	22	23	24

Maiatza 2026					
Txanda	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
15	4	5	6	7	8
16	11	12	13	14	15
17	18	19	20	21	22



Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasleak

Abendua 2025					
Txanda	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
1	1	2	3	4	5
2	15	16	17	18	19

Urtarrila 2026					
Txanda	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
3	12	13	14	15	16
4	19	20	21	22	23
5	26	27	28	29	30

Otsaila 2026					
Txanda	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
6	2	3	4	5	6
7	9	10	11	12	13
8	23	24	25	26	27

Martxoa 2026					
Txanda	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
9	2	3	4	5	6
10	9	10	11	12	13
11	16	17	18	19	20
12	23	24	25	26	27

Apirila 2026					
Txanda	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
13	13	14	15	16	17
14	20	21	22	23	24

Maiatza 2026					
Txanda	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
15	4	5	6	7	8
16	11	12	13	14	15
17	18	19	20	21	22

II. ERANSKINA

ORIENTABIDE OROKORRAK

1. Barnetegi-programaren helburuak:

Barnetegi hauen helburua da ingelesa ikastea eta erabiltzea. Jarduera guztiak ingelesez gauzatuko dira. Egonaldien azken xedea da ikasleen gaitasunak finkatzea eta aurretik dituztenak handitzea. Horretarako, parte-hartzaileentzat erakargarriak eta dibertigarriak diren jarduerak gauzatuko dira.

2. Antolakuntza-ezaugarriak:

Egonaldiaren ezaugarriak hauek dira:

- Astebeteko barnetegiak izango dira. Ikasleak astelehen goizean heldu eta ostiralean joango dira, bazkalostean. Egonaldiak, hortaz, bost egun eta lau gautakoak izango dira.
- Ikasleek 5 eta 8 eskola-ordu artean izango dituzte egunero.
- Eskolaz kanpoko jarduerak eta txangoak egingo dira barnetegitik gertuko lekuetara. Horiek guztiak ingelesez izango dira.

3. Ezaugarri pedagogikoak:

Jarraian aipatuko ditugun atalak landuko dira eta ikasleen hezkuntza-etapara egokitu:

Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleak

•**1 Tailerra “Be a scientist”:** zenbait esperimentu zientifiko gauzatuko dira; landare-albuma osatu; barnetegiaren inguru naturala ezagutu; klima aztertu; gauez zeruari begiratu. Tailerra amaitzean, ikasitakoa hitzez azalduko dute ikasleek.

•**2 Tailerra “Be an artist”:** abestien letrak aztertu; abestiak kantatu; abesti bat egin eta hura kantatu; pintura-tailerra, eskultura-tailerra, maketa-tailerra egin eta erakusketa antolatu.

•**3 Tailerra “Be a cook”:** janari errazak prestatu (osagaien zerrenda, erabiliko ditugun tresnen zerrenda, janaria egiteko urratsak azaldu, egin ditugun platerak balioetsi).

•**4 Tailerra “The Olympic Games”:** taldeko kirolak eta jolasak. Arauak negoziatu, azalpenak eman, lagunarteko hizkera landu, eta abar.

•**5 Tailerra “Be a blogger”:** ikastetxearen *bloga* egin, non ikasleek jarduera gauzatuak azalduko dituzten. *Blog*-ean, gainera, bideoak nahiz argazkiak esekiko dituzte eta ingelesezko foroa martxan jarriko dute ikasleek, behin egonaldia amaiturik lagunekin kontaktuan segitzeko. Jarduera horretan kontu handiz zaindu

beharko da *blog*-ean esekitzen diren bideoek eta argazkiek bizikidetza-arauekin bat etortzea eta parte-hartzaile guztien oniritzia izatea.

CLIL (Content and Language Integrated Learning) ikuspegiarekin bat etorriko da metodologia. Hizkuntza, beraz, ikaskuntza-tresna izango da. Hizkuntzaren bidez Lehen Hezkuntzako 6. mailako curriculum-alorrekin lotura duten zenbait eduki garatuko dira. Ahoz mintzatzeko gaitasuna bereziki landuko da.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasleak

- **1 Tailerra “Time travel”:** Hainbat une historiko aztertzea eta irudikatzea (antzerkia, bideoa, aurkezpena eta abar). Hainbat aldagai kontuan hartuta, hala nola: bizimodua, gizarte-antolaketa, osasuna, emakumeen eskubideak eta beste kolektibo batzuk.
- **2 Tailerra “Create our own business”:** Eskura dauden baliabideekin proiektu bat antolatzea, proiektua bera definitzea (musika-taldea, bideo-jokoen enpresa edo haren intereseko edozein), xede duen kolektibo potentziala identifikatzea, aurrekontu bat egitea, beharrezko baliabideak zerrendatzea (ekonomikoak, giza baliabideak eta baliabide materialak), kostuak eta onurak kalkulatzeko eta proiektua gidatzea (kontzertu bat, joko baten demoa edo beste batzuk). Proiektua eta haren bideragarritasuna aurkeztea.
- **3 Tailerra “Endangered animals”:** Animalientzako arrisku-kategoriak aztertzea, kategoria desberdinetan dauden Euskal Herriko animaliak identifikatzea, haien banaketa geografikoa ikustea eta quiz bat (Kahoot, Mentimeter, Socrative, Join My Quizz edo beste bat) edo aurkezpen interaktibo bat (Canva, Genially edo beste bat) egitea, emaitzak ezagutarazteko eta animalien desagertzearen egoeraz, kauek eta ondorioez taldea kontzientziazteko.
- **4 Tailerra “The Olympic Games”:** Taldeko kirolak eta jolasak aipatzea. Arauak negoziatzea, jarraibideak ematea, lagunarteko adierazpenak, etab.
- **5 Tailerra “Be a blogger”:** Ikastetxeko blog bat irekitzea, egindako jarduerak, bideoak eta argazkiak jasotzeko eta egonaldia amaitutakoan ingelesez harremanetan jarraitzeko foro bat eskaintzeko. Jarduera horretan, arreta berezia jarri beharko da bloger bideoak eta argazkiak bizikidetza-arauekin bat etor daitezkeen eta guztien baimena izan dezaten.

Ez dira ingeles gramatikako eskola formalak emango. Nolanahi ere, jarduera programatuetako batzuk ikasgelan gauzatu daitezke eta haien bidez ingeles-gramatika landu.

Eguneroko eginbeharretan multimedia baliabideak erabiliko dira.

Ahozko adierazpena modu sistematikoan landuko da. Horrela, egunero, eskola-orduak amaitzean, ikasleek, taldeka zein banaka, ahoz emango dituzte azalpenak.

Ikasle bakoitzak mintza praktika egin beharko du egunero. Horrez gain, barnetegia amaitzean ikasle taldeek mintzaldia prestatuko dute ingelesez, besteen aurrean, ingelesez berriro ere, azaltzeko.

4. Irakasle laguntzaileen elkarlana:

Taldearekin batera joaten diren irakasle laguntzaileek taldearen ardura izango dute uneoro eta ondorio guztietarako, Ebazpenaren Bigarren atalean adierazitako betebeharrak betez. Horrez gain, ikasleek jardueran egoki parte hartzea zainduko dute irakasleek.

Barnetegira joan aurretik, ikastetxea harremanean jarriko da enpresa antolatzailearekin. Horrela, ikastetxeak informazioa lortuko du eguneroko programazio orokorraren gain eta, hala badagokio, ekarpen zehatzak egin ditzake.

Barnetegiko programazio aurreikusia gogoan, irakasle laguntzaileek eta enpresa antolatzaileak elkarlanean aritzeko beste modu batzuk hitzartu ditzakete. Biek ala biek, garrantzi handia emango diote eguna amaitzean nahiz egonaldiaren azken egunean ikasleek egin behar dituzten ahozko azalpenak prestatzeari.

5. Programan erabiliko diren baliabideak:

Egonaldiak barnetegietako moduan egingo dira, bi ostatu edo egoitzetan gutxienez. Ostatu edo egoitza hauek areto egokiak izango dituzte parte-hartzaileei egonaldiaren berezko zerbitzu guztiak eskaintzeko (logelak, jantokia, ikasgelak eta hezkuntza-jardueretarako hainbat areto). Onartutako ikastetxe bateko ikasleek aterpetxearen edukiera gaindituko balute, aterpetxe desberdinen artean edo txanda desberdinetan banatuko dira ikasleak.

Astero, Lehen Hezkuntzako 105 ikasle inguruk eta Bigarren Hezkuntzako 105 ikaslek hartuko dute parte, irakasle laguntzaileekin batera. Aterpetxe bakoitzean 10-14 ikasleko taldeak eratuko dira, eta hainbat ikastetxetako ikasleek osa ditzakete taldeak.

Jarduera-programa gauzatuko duen lantaldea osatuko dute ingelesa guztiz menderatzen duten profesionalek. Profesional horiek, gainera, gai dira hizkuntza irakasteko edo animazio sozialeko nahiz kultureko eta aisialdiko zein astialdiko jarduerak antolatzeko. Profesional horietako bat programaren koordinatzaile nagusi izango da, eta barnetegian biziko da.

Goian aipatu dugun lantaldeak parte-hartzaileen esku jarriko ditu murgiltze-programan aurreikusi diren jarduera guztiak gauzatzeko beharrezkoak diren baliabide materialak. Horrez gain, taldeei behar duten materiala emango diete parte-hartze proiektuak garatzeko. Halaber, ikastetxe, ostatu/egoitza ere sartuta dago.